



Kurrin txerri gaztetxo bat da, asmu zoriontsuduna eta beti besteen gainetik bere borondatea jartzekoa, obeidu eta errespetatu eraginaziz bordako aberetxo guztiei.



Bere buruari hain handikia erizten dienez jai bat ematea erabaki du, deitua dan bakoitzak bere gisara zerbait agertu beharko duana. Borda hartako ukuluetan ez zan beste auturik gertakari hori baizik eta batzuek jardunean ari ziren, besteak Kurrin-en asmua goraldiaz ari ziren.



Haritzik handieneran josita agertu da
dei-agiri bat guztiei jaira etortzeko esa-
naz, eta irakurtzen dutenak deiaren
berria zabaldu dezatela esanaz.



Indioilarrak, zekorrak,
kuiak, ahate andereak,
sagutxoak, ontz jau-
nak eta ahuñak parte
hartuko dute jaialdian
eta egun handia helt-
zeko nahian daude.



Bitartean bakoitza jantzi eta pitxi dotore bila dabilta bertara txukun agertzeko.

—Nik iruiletazko kapusai beltz bat eramango dut, urrez bordatua.

—Nik mandira handi bat lurreraino-koa lorazko dibujuz egina.

—Eta nik txarolezko zapatak borla-dun zinta gorriekin.

Tortugatxo gaixoa bakarrik da zerekin jantzi ez dakiena eta arduratsu dago. Bere kaskoa, izan ere, ez da errez dotoretzea eta diz-diz jarri arte ondo garbitzearekin konformatu behar-ko du...

Egun izendatua irix-



tean, ama Loka, oilatokian, ez da nekatzen bere txitei aholku onak ematen, sotiltasunez eta errespetuz ibili dezaten. Jaia bederatziretan da. Banan bana, guztiak dijoaz biltzar tokira, bordako zelaira, Kurrin-ek edariz mahia gerturik duan lekura, loraz eta

frutuz apaindua gainera. Erabagia dago indioilarrak gitarra jotea eta kuitxoak esku-joko liluragarriak egitea. Ahuñak bertsoak kantatu eta astoak ilargiari arrantza. Dana dala, guztiak dute dantzarako gogo zoroa... Lagun guztiak arriturik begiratzen zuten Kurrin-ek gozokiz beterik gertaturiko ma-



haia. Opil-gozoz, eztiz, pastelez, eta gainerako zenbait gozokiz beren usai atsegina inguruan zabalitzen zuelarik, edonorri ahoan ura egitekoa zan suhur azpian alde zurretik gozatzeko eran. Erreberentziak, eskumuinak eta agurrak banandu ziran batzarkideen artean.



Kurrin, gaur inoiz baino gehiago, zerritxo handiki dala nabaritzen da eta zoriontsu da, ezer etzaio falta. Ez neke gabe, baina igo de mahai gainera bere lagunak hobeto ikusteko eta, ohitura danez, hitzalditxo polit bat esatera gertatu zan...
Baina, zer gertatzen da?





Hurrutira entzuten dira trumoiak bezalako zarata hotsak. Eta zeruan hodeirik ageri ezarren eta ilargi eta izarrak dizdira egin, zarata geroago eta hurbilago entzuten da.

Oilarrak kantatzen duan baino askarrago
borda hutsik gelditu zan. Guztiak joan
ziran bide baztarrera zer zan jakin na-
hirik. Baina zarata hurrutiagotik dator,
behar bada auzoko herritik eta hura



ateratzen zuena au-
to bat zan. Ordura arte
inoiz ez zan iritxi autorik haraino.
Kurrin bakarrik gelditu zanez, berak ere
herriraino joatea erabaki zuan.



Inoiz ez zan joan borda inguratzen zuten zelaietatik haruntza eta bere jakin nahia neurri gabea zan. Ez ekian autoak zeudenik ere, ordura arte bordako gurdia eta nagusien zalpurdia bakarrik ikusi zituan. Orain bere aurretik hurbil burdinazko dramakulua hain bizkor igaroz ikustean eta hots izugarritz gainera, bildurtu zan. Jarraitu zuan ibiliz, hala ere herria baino haruntzago, hiriraino heltzea erabaki zuan. Konturatzen da, une haretan hutsik egoan kalearen erdian kriselu antzerako argi bat egoala zintzilirik, batean argi gorria eta bestean argi muskerrez piztu eta itzaliz ari zela. Zer arraio ote?

Kurrin-ek dana ikusteko gogoa zeraman,
dana jakin nahia, eta ez bildur gabe bai-
na ausartu zan hirian barneratzen. Arri-
turik gelditu zan kale zabal batetik



azkona bezik azkar eta amai gabe iga-
rotzen zirala haietakoak argiak kinuka
zeramaztela. Eta, nahaste ikaragarri haren
erdian gizon bat urdinez jantzirik eskuan
makilatxo batekin noizean behin geldi-
eraziz eta une baten ondorean berriz
lasterka joaten utziaz. Kurrin zeharo bil-
durtuta dago, baina halako batean au-
sartzen da, eta kurairaz beterik, gizon
haren gana hurbildu eta galdetzen dio:



—Barkatu, jauna! Zein zaitugu zu ahalmen horren jabe zerana "gauza" hoiek geldierazi eta zerorrek nahi duzunean berriz martxan jarteko?

—Ni herri-zain bat naiz eta zirkulazioaren jira-birak zaintzen ditut. Baina zu nora zatoz, zerritxo kezkatihori? Ez al duzu inoiz autorik ikusi?

Kurrin-ek buruari alde batera eta bestera ezezkoa emanaz mugitzen



zuan artean, berekikoetan zion, buruz ikasi nahirik, entzun berri zuan hitz hura: a - u - to - a.

Ilargi zuriak borda guziari argia ematen ziola
itzuli zan Kurrin, eta inoiz baino ederragoa



zeritzan bere borda ingurua.
Heldu zanean oraindik zain
zeuden lagun batzuek arkitu
zitan gertakizunok ele zirela.



Biharamunean
guztieri kontatu zien
bere kezkaz eraman da
egin zuan bihurrikeria, bein eta
berriz, mila aldiz, kontatu ere
ikasi zituan bi hitzak adieraziz: autoa
eta herri-zaina.